

## **Zainak: azal grafikoak. Eliza ortodoxoa**

Elena Mendizabal Egualde

Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea  
Arte Ederren Fakultatea. Eskultura eta Artea eta Teknologia Saila

---

2022an, otsailtik ekainera, marrazki digitalak egiten aritu nintzen. Aspalditik nuen mundu digitaletik zerbait ikasteko gogo: 3D modelatzea edo beste gauzaren bat egitea. Mundu handi bat iruditzen zitzaidan, dena nahasten zuena eta gugandik at zegoena, alegia; normalean zuzenean materialekin eskulturak egiten baitituz.

Digitalki marraztera eraman ninduen izan zen hilabete batzuen ondoren eskultura berriro egiteko ideiarekin bat eskuz marrazten hastea. Ezer ez! Marrazki bat edo bi txiki txikiak egin nituen, zehaztasun gabekoak, koadernoetako beste hainbeste bezala. Baina horiek marrazkiak ez zaizkit euren izaera propioan, marrazki legez gustatzen.

Klaseak ematen ari naizenean, ikasleei esaten diet nola edo hala has daitezela ariketan proposatu didan tamainan lan egiteko materialik ez badute: collageak edo eskulturatxoak egitea erabiltzeko errazak diren materialekin, baina eskultura baterako zirriborro baten ideiarekin arkatzez marraztu gabe. Bi dimentsiotako zer edo zer eginda dutenean ere, perspektiban errepresentazio zehatza ez denez, hiru dimentsiotan modu desberdinetan interpreta daitekeela esaten diet. Kontua da egiten duten hori gimnasia moduko bat dela, gero beste material batzuetan lan egiteko, berez balioa duena; material bakoitzak berea duena, bere nolakotasunak, oroitzapenak, landuak izateko iradokizunak... guztia baita, egiazki, den hori.

Horrela, BilbaoArten *wacom* bat ikasteari eta erabiltzeari ekin nion, eta ikasten joan naizen heinean, harritu egin naiz emaitzekin, eta egitekoan sortzen ziren istripuekin funtzio anitzak sartu ditut. Lehen egunean eskulturak egiteko marraztu nahia izan zirenak, hasierako minututik, marrazkiak izan ziren bere horretan.


Marrazkiak egitea oso prozesu azkarra izan zen hasieran, eta motelagoa gero, lortutako emaitza jakin batzuk edo aurreko marrazkien aldaketak errepikatu nahi izan zirelako. Prozesuan, ikusitako gauzen, estetiken, artista konkretuen lanen eta errealtateen elkarketak sortzen ziren. Oso arina da, emaitzak erraz ikusten baitira. Oroitzapen horiek aurkitzea oso dibertigarria suertatzen zitzaidan, zeren beti egiten nuena iruzkin edo "komentario" murriz bat izaten baitzen, izenburua jartzean agertzen zen umorezko zerbaitekin aurrez pentsatu gabeko aipu bat. Izenburua berez sortzen zen marrazkiak ordenagailuan izendatzeko eta artxibatze modu baten gisara, eta aldi berean marrazkiekin elkarrizketa dibertigarria ezartzen zen, marrazkiak egitean agerturiko den horizontea azpimarratzeko.

Honek *eliza ortodoxoa* du izenburu.

Aipatu dudan moduan, formek, irudiek, konposizioek eta abarrek ikusiriko gauzen memoriak pizten dituzte, beste era batera, nahiz eta egon, oroitzapenetik sortzen ez direnak.

Eliza ortodoxoak: Ravenako eliza bizantziarren estetika, 1999. urte aldera ikusiak eta 2016an Bukaresten. Eliza horiek ez dira, hain zuzen ere, soilak, baina bai nabarmen geometrikoak, barroko katolikoaren aldean zertxobait desberdinak. Mosaikoen irudien simetriarako eta lerrorako joera eta ezaugarri markatuak zein arkitekturako irudien bolumen salbuetsien argitasuna irmoak, orekatuak eta indartsuak dira, baina aldi berean arinak, ordenaren argitasunagatik.

*Eliza ortodoxoak*, bere haragi-koloreko orbanarekin, bularraldearen erradiografia bikoitz eta alderantzizkoa gogorarazten didanak, eta erdian gurutze bat duenak, ez latindarra ez grekoa, gorputz mekaniko eta zorrotza adierazten du.



Irudia 1. Azalen kokapenaren adibidea. Elena Mendizabal.  
Jatorrizkoa: *Eliza ortodoxoa*, 2022. Marrazki digitala, 300 puntu. 30x30 cm.

